aren 18. eta 52. artikuluetan eta bere Araudiaren 17. Eta 56.1 artikuluetan aurreikusitakoaren ondorio guztietarako interesatuek egokitzat jotzen dituzten alegazioak eta ukitutakoak euren titularitateko ondasunak eta eskubideak okupatzeagatik euren oposizioa aurkeztu ahal izateko eta era berean, argitaratzen den ukitutakoen zerrenda honetan agertzen diren hutsak zuzentzeko datuak idatziz aurkeztutako.

Aipaturiko epe horretan aztertu nahi duten guztientzako espedientea publikoki argitaraturik egongo da, goizeko 9:00etatik 13:00etara bitartean lanegunetan, Zierbenako Udaletxeko Udal Bulego Teknikoan (La Cuesta Auzoko, 1 - 48508 Zierbena).

Jabeen eta ondasun eta eskubideen zerrenda honako hau da:

a los efectos previstos en los artículos 18 y 52 de la Ley de Expropiación Forzosa y 17 y 56.1 de su Reglamento, para que los interesados puedan presentar las oportunas alegaciones y por los afectados pueda formularse oposición a la urgencia y procedencia de la ocupación de los bienes y derechos de su titularidad, así como aportar por escrito, cuantos datos permitan rectificar los posibles errores cometidos en la relación de afecciones que se publica.

Durante el expresado plazo el expediente se encontrará a disposición de quien quiera examinarlo, de 9:00 a 13:00 horas, de lunes a viernes, en la Oficina Técnica Municipal del Ayuntamiento de Zierbena (B.º La Cuesta, 1 - 48508 Zierbena).

La relación de propietarios y bienes y derechos afectados es la siguiente:

**ALDAPA AUZUNETIK KARDEORAINO SANEAMENDURAKO PROIEKTUA - LEHEN ZATIA / PROYECTO DE SANEAMIENTO DE LA CUESTA A KARDEO - 1.ª FASE**

| Lurzati zk. / N.º de finca | Jabearen izen-abizenak eta helbidea / Nombre y domicilio del titular | Jabego erroldeko zeharztazunak / Datos catastrales | | | Eragindako ondasunaren ezaugarri eta erabilera / Naturaleza y aprovechamiento del bien afectado | Bide-zor iraunkorra / Servidumbre permanente | | Albidater. okupazioa m² / Ocupación temporal m² |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Lur-eremua / Polígono | Etxalde / Manzana | Lursaila / Parcela | | ml | m² | |
| 17 | Hdros. de JOSE BRAZAOLA FERNANDEZ<br>B.º La Cuesta, n.º 41 - 48508 ZIERBENA | 2 | | 62 | Improductivo | 12,4 | 62,00 | 124,00 |
| 19 | FIDEL BERNAOLA ARAMBURU y otros<br>B.º del El Puerto, n.º 43 - 48508 ZIERBENA | 2 | | 64 | Improductivo | 12,8 | 64,00 | 128,00 |
| 34 | ANACLETO ZABALA CASTAÑOS | 2 | | 175 | Improductivo | 13,7 | 68,50 | 137,00 |
| 64 | JOSE POVEDANO RUBIO<br>B.º La Cuesta, n.º 77 - 48508 ZIERBENA | 2 | | 649 | Improductivo | 42,5 | 85,00 | 0,00 |
| 7 | BASILIO ARTECHE TAJADA<br>B.º La Cuesta, n.º 64 - 48508 ZIERBENA | 2 | 4 | 12 | Urbana Area 5 | 7,1 | 35,50 | 71,00 |

Zierbenan, 2005ko urtarrilaren 4ean.—Alkatea, Marcelino Elorza Talledo

(II-121)

En Zierbena, a 4 de enero de 2005.—El Alcalde, Marcelino Elorza Talledo

(II-121)

•

## Basauriko Udala

### IDAZKARITZA NAGUSIA

IRAGARKIA

Basauriko Udaleko Udalbatzak, 2004ko abenduaren 28an egindako ohiko bilkuran, beste zenbait erabakirekin batera, alegazioei ezezpena ematea erabiki zuen, hain zuzen, Udal Dirulaguntzak emateko Ordenantzaren hasierako onespeneko akordioaren aurka jarritakoei. Ondorioz, Udalbatzak behin-betiko onespena ematea erabaki zuen hurrengo Ordenantzari.

### UDAL DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO ORDENANTZA

ATARIKO TITULUA

**XEDAPEN NAGUSIAK**

I. KAPITULUA

**APLIKAZIO EREMUA**

**1. artikulua.—*Xedea***

Ordenantza honen xedea Basauriko Udalak eta haren erakunde autonomoek emandako diru-laguntzen araubide juridiko nagusia araupetzea da, udalaren herri onura duen edozein ekimen pribatu sustatuta.

•

## Ayuntamiento de Basauri

### SECRETARIA GENERAL

ANUNCIO

El Ayuntamiento de Basauri Pleno, en sesión ordinaria celebrada el día 28 de diciembre de 2004, adoptó entre otros, el acuerdo de desestimar las alegaciones presentadas al acuerdo de aprobación inicial de la Ordenanza para la concesión de Subvenciones Municipales. En consecuencia, el Ayuntamiento Pleno acordó elevar a definitiva la siguiente Ordenanza:

### ORDENANZA PARA LA CONCESION DE SUBVENCIONES MUNICIPALES

TITULO PRELIMINAR

**DISPOSICIONES GENERALES**

CAPITULO I

**AMBITO DE APLICACION**

**Artículo 1.—*Objeto***

Esta Ordenanza tiene por objeto la regulación del régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por el Ayuntamiento de Basauri y sus Organismos Autónomos, fomentando cualquier iniciativa privada donde concurra el interés público municipal.

**2. artikulua.—*Diru-laguntzaren kontzeptua***

1. Udalak edo haren erakunde autonomoek pertsona publikoen edo pribatuen alde emandako diruzko baliatze orori deritzo diru-laguntza, betiere honako eskakizun hauek betetzen badira:

a) Diru-laguntzak onuradunen zuzeneko kontraprestazorik barik ematea.
b) Diru-laguntzaren emakida helburu jakin bati, proiektu baten burutzapenari, jarduera bat egiteari, jarrera berezi bat hartzeari edo egoera bati lotuta egotea, horiek guztiak eginda edo egitekoak direnak; ezarritako betebehar materialak eta formalak bete beharko ditu onuradunak.
c) Diruz lagundutako proiektuaren, ekintzaren, jarreraren edo egoeraren xedea herri edo gizarte onurako jarduera bat edo herri helburu bat sustatzea izatea.

2. Hiriaren irudia kanpoan hedatzeko onuragarritzat hartzen diren diru-laguntzak direnean, honako eskakizun hauek bete beharko dira:

a) Basauriren irudia eta izena jendaurrean modu nabarmenean agertzea.
b) Jarduketa horietan ahalik eta gizarte oihartzunik handiena bilatzea.
c) Jarduketa horien zioen eta helburuen artean, zehatz azaltzea Basauri kanpora begira sustatu nahi izatea.

3. Ordenantza honen aplikazio eremuak ez ditu barruan hartuko honako diru ekarpen hauek:

a) Udalak haren erakunde autonomoei edo udalaren partaidetzako herri sozietateei erakunde bakoitzaren jarduera osoa finantzatzeko egindako ekarpenak, aurrekontuen arautegia aplikatzeari kalterik egin barik.
b) EUDEL Euskadiko Udalen Elkartearentzat edo Tokiko Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen bosgarren xedapen gehigarrian ezarritako udalerrietako edozein elkarterentzat diren kuotak.
c) Udal talde politikoei egindako ekarpenak, aurrekontuei eta kontabilitateari buruzko arautegiaren aplikazioari kalterik egin barik.
d) Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorrean ezarritako gainerako guztiak.

**Artículo 2.—*Concepto de subvención***

1. Se entiende por subvención toda disposición dineraria realizada por el Ayuntamiento o sus Organismos Autónomos, a favor de personas públicas o privadas, y que cumpla los siguientes requisitos:

a) Que la entrega se realice sin contraprestación directa de los beneficiarios.
b) Que la entrega esté sujeta al cumplimiento de un determinado objetivo, la ejecución de un proyecto, la realización de una actividad, la adopción de un comportamiento singular, ya realizados o por desarrollar, o la concurrencia de una situación, debiendo el beneficiario cumplir las obligaciones materiales y formales que se hubieran establecido.
c) Que el proyecto, la acción, conducta o situación financiada tenga por objeto el fomento de una actividad de utilidad pública o interés social o de promoción de una finalidad pública.

2. Cuando se trate de subvenciones cuya finalidad se considere de interés para la proyección exterior de la ciudad, deberán cumplir los siguientes requisitos:

a) Que se traslade la imagen y el nombre de Basauri de forma pública y notoria.
b) Que se busque en dichas actuaciones la mayor repercusión social posible.
c) Que entre los motivos y objetivos de dichas actuaciones se explique detalladamente la promoción de Basauri al exterior.

3. No están comprendidas en el ámbito de aplicación de esta Ordenanza las siguientes aportaciones dinerarias:

a) Aportaciones del Ayuntamiento a sus organismos autónomos o sociedades públicas en las que participe, destinadas a financiar globalmente la actividad de cada ente, sin perjuicio de la aplicación de la normativa presupuestaria.
b) Las cuotas a EUDEL, Asociación de Municipios Vascos o cualesquiera otra asociaciones de municipios previstas en la Disposición Adicional Quinta de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las bases de Régimen Local.
c) Las aportaciones a los grupos políticos municipales, sin perjuicio de la aplicación de la normativa presupuestaria y contable.
d) Las demás previstas en la Ley General de Subvenciones.

II. KAPITULUA

## UDALAK EDO HAREN ERAKUNDE AUTONOMOEK EMANDAKO DIRU-LAGUNTZETAN GUZTIENTZAT DIREN XEDAPENAK

**3. artikulua.—*Aurrekontu aurreikuspena***

1. Diru-laguntzaren emakida baimentzeko udalak edo haren erakunde autonomoek hartutako erabaki orok, aldez aurretik, aurrekontuko zainpeketa eta kreditua atxikitzeko dokumentua izan behar ditu eta fiskalizazioaren izapidea bete beharko du, Aurrekontua Betearazteko Udal Arauan ezarritakoarekin bat etorriz.

2. Eskubide osoz deusezak izango dira diru-laguntzak emateko erabakiak, aldez aurretik aurrekontuan zainpeketa nahikoa eta egokia eduki ezik.

**4. artikulua.—*Printzipio nagusiak***

1. Diru-laguntza oro herri helburu edo gizarte onura baterako emango da, herri administrazioari badagokio helburu horiek sustatzea. Eskubide osoz deusezak izango dira diru-laguntzak emateko erabakiak eskuzabaltasun hutsez jokatzeko hartzen direnean.

2. Diru-laguntzak borondatezkoak eta aldi baterakoak izango dira, eta edozein unetan ezeztatu edo murriztu daitezke, legean edo arauetan ezarritakoa izan ezik. Diru-laguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatzen badira edo, nolanahi ere, arauetan baimendutako kasuetatik kanpora lortzen badira beste ekarpen batzuk, diru-laguntza emateko ebazpena aldaraz daiteke.

CAPITULO II

## DISPOSICIONES COMUNES A LAS SUBVENCIONES OTORGADAS POR EL AYUNTAMIENTO O SUS ORGANISMOS AUTONOMOS

**Artículo 3.—*Previsión presupuestaria***

1. Todo acuerdo por el que el Ayuntamiento o sus Organismos Autónomos autorice la concesión de una subvención, deberá contar previamente con consignación presupuestaria, documento de Retención de Crédito y ser sometido al trámite de fiscalización, conforme a lo previsto en la Norma Municipal de Ejecución Presupuestaria.

2. Serán nulos de pleno derecho los acuerdos de concesión de subvenciones efectuados sin consignación presupuestaria previa, adecuada y suficiente.

**Artículo 4.—*Principios Generales***

1. Toda subvención debe responder a una finalidad pública o un interés social, cuyo fomento esté encomendado a la Administración local. Serán nulos de pleno derecho los acuerdos de concesión de subvenciones que obedezcan a la mera liberalidad.

2. Las subvenciones tendrán carácter voluntario y eventual, siendo susceptibles de revocación o reducción en cualquier momento, salvo lo que se disponga legal o reglamentariamente. Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención y, en todo caso, la obtención concurrente de otras aportaciones fuera de los casos permitidos en las normas reguladoras, podrá dar lugar a la modificación de la resolución de la concesión.

3. Ez zaie diru-laguntzarik emango merkatuko lehiakortasun librearen kolusio jarduketak edo jarduketa murrizgarriak dakartzaten ekonomi jarduerei, lehiakortasunaren alde estatuak eta Europar Batasunak emandako arauetan ezarritakoarekin bat etorriz.

4. Diru-laguntzen zenbatekoa ez da inola ere diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa izango, diru-laguntza bera bakarrik edo beste diru-laguntzekin batera.

5. Diru-laguntzak honako irizpide hauen arabera kudeatuko dira:

a) Publizitatea, merezimendua, gardentasuna, lehiaketa librea, objektibotasuna, berdintasuna eta diskriminaziorik eza.
b) Eraginkorra izatea udalak edo haren erakunde autonomoek finkatutako helburuak betetzean.
c) Eraginkorra izatea baliabide publikoak baliatzean eta erabiltzean.

6. Diru-laguntza jasotzen dutenek, diru-laguntza jaso baino lehen, lehenago jasotako diru-laguntzen egiaztapena kreditatu beharko dute, baita udalarekin zerga-betebeharrak egunean dituztela ere; gainera, jasotako funtsen aplikazioa egiaztatu beharko dute gero.

7. Baldin eta jasotako funtsen aplikazioari buruzko egiaztapena aurkeztu beharra betetzen ez bada, edo diru-laguntza eman den helbururako ez beste xede baterako erabiltzen bada, edo onuradunei ezarritako betebeharrak betetzen ez badira, onuradunek itzuli egin beharko dituzte jasotako kopuruak berandutze-interesak eta guzti, hain zuzen ere diru-laguntza ordaintzen denetik berau itzuli arte, ordenantza honetako II. Tituluan xedatutako prozedurarekin bat etorriz.

**5. artikulua.—*Diru-laguntzen plan estrategikoa***

1. Udalak edo haren erakunde autonomoek, diru-laguntzak ezartzea proposatzen dutenean, diru-laguntza ezarrita lortu nahi diren helburuak eta ondorioak, aurreikus daitezkeen kostuak eta finantzabideak zehaztu beharko dituzte diru-laguntzen plan estrategikoan, betiere aurrekontuaren egonkortasunaren menpe gelditua.

2. Plan estrategiko hori aurrekontuak onetsiko direnean egin daiteke eta aurrekontuen dokumentazioan sar daiteke. Nolanahi ere, diru-laguntzak onesteko edo aldarazteko, aldez aurretik edo aldi berean plan estrategikoa onetsi edo aldarazi beharko da.

**6. artikulua.—*Diru-laguntzak emateko betekizunak***

1. Diru-laguntzak eman baino lehen, diru-laguntzen emakida ezarriko duten arauak onetsi beharko dira, ordenantza honetan xedatutakoaren arabera.

2. Diru-laguntza mota bakoitzaren oinarri arautzaileak aldizkari ofizialean argitaratuko dira.

3. Gehigarri moduan, diru-laguntza emateko honako eskakizun hauek bete behar dira:

a) Erakunde emailea eskuduna izatea.
b) Diru-laguntzaren emakidak dakartzan ekonomi arloko betebeharrei aurre egiteko nahikoa kreditu eta kreditu egokia izatea, 3. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.
c) Diru-laguntza emateko prozeduraren izapidea ordenantza honekin eta aplikatzekoak diren gainerako arauekin bat etorriz egingo da.
d) Gastuaren aurretiazko fiskalizazioa.
e) Erakunde eskudunak gastua onestea.

**7. artikulua.—*Onuradunak***

1. Diru-laguntzen onuraduna izango da jarduera egin eta diru-laguntza jasotzeko zioak oinarritzen dituen edo diru-laguntzaren emakida legebideztatzen duen egoeran dagoen pertsona.

2. Oinarri arautzaileetan beren beregi hala xedatzen denean, onuradunak izan daitezke pertsona fisikoen edo gurasoen elkarte publikoak edo pribatuak, ondasunen elkarteak, jabeen elkarteak edo, nortasun juridikorik izan gabe ere, proiektuak eta jarduerak egin

3. No podrán concederse subvenciones a actividades económicas que impliquen prácticas restrictivas o colusorias de la libre competencia en el mercado, de conformidad con lo dispuesto en la normativa estatal y europea de defensa de la competencia.

4. El importe de las subvenciones en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones o ayudas supere el coste de la actividad subvencionada.

5. La gestión de las subvenciones se realizará de acuerdo a los siguientes principios:

a) Publicidad, mérito, transparencia, libre concurrencia, objetividad, igualdad y no discriminación.
b) Eficacia en el cumplimiento de los objetivos fijados por el Ayuntamiento o sus Organismos Autónomos.
c) Eficiencia en la asignación y utilización de los recursos públicos.

6. Los perceptores de subvenciones vendrán obligados a acreditar antes de su percepción, la justificación de las subvenciones anteriormente recibidas así como que se encuentran al corriente de sus obligaciones fiscales con el Ayuntamiento, y a justificar posteriormente la aplicación de los fondos recibidos.

7. En el supuesto de incumplimiento del deber de justificación de la aplicación de los fondos recibidos, o de aplicación a finalidades distintas para las que haya sido concedida la subvención, o de incumplimiento de las obligaciones impuestas a los beneficiarios, éstos vendrán obligados a reintegrar las cantidades percibidas con el interés de demora desde el momento del pago de la subvención hasta la fecha de su reintegro, conforme al procedimiento establecido en el Título II de este Ordenanza.

**Artículo 5.—*Plan estratégico de subvenciones***

1. El Ayuntamiento o sus Organismos Autónomos, cuando proponga el establecimiento de subvenciones, deberá concretar en un plan estratégico de subvenciones los objetivos y efectos que se pretenden con su aplicación, el plazo necesario para su consecución los costes previsibles y sus fuentes de financiación, supeditándose al objetivo de estabilidad presupuestaria.

2. Dicho plan estratégico podrá formularse con ocasión de la aprobación de los Presupuestos e integrarse en la documentación que forma parte de éstos. En todo caso, la aprobación o modificación de subvenciones requerirá de la previa o simultánea aprobación o modificación del citado plan estratégico.

**Artículo 6.—*Requisitos para la concesión de subvenciones***

1. Con carácter previo al otorgamiento de subvenciones, deberán aprobarse las normas que establezcan las bases reguladoras de la concesión en los términos establecidos en esta Ordenanza.

2. Las bases reguladoras de cada tipo de subvención se publicarán en el diario oficial correspondiente.

3. Adicionalmente, el otorgamiento de una subvención debe cumplir los siguientes requisitos:

a) La competencia del órgano concedente.
b) La existencia de crédito adecuado y suficiente para atender las obligaciones de contenido económico que se derivan de la concesión de la subvención, conforme a lo dispuesto en el artículo 3.
c) La tramitación del procedimiento de concesión de acuerdo con esta Ordenanza y demás normas que resulten de aplicación.
d) La fiscalización previa del gasto.
e) La aprobación del gasto por el órgano competente.

**Artículo 7.—*Beneficiarios***

1. Tendrá la consideración de beneficiario de subvenciones, la persona que haya de realizar la actividad que fundamente su otorgamiento o que se encuentre en la situación que legitime su concesión.

2. Cuando se prevea expresamente en las bases reguladoras, podrán acceder a la condición de beneficiario las agrupaciones de personas físicas o jurídicas, públicas o privadas, las comunidades de bienes, comunidades de propietarios o cualquier otro

edo jarrera jakin bat har dezakeen edozein ekonomi edo ondare unitate banatua, edo diru-laguntza emateko egoeran dauden pertsona guztiak.

3. Aurreko atalaren kasuan, elkarteko ordezkari edo ahaldun bakarra izendatu beharko da, onuradun gisa elkarteari dagozkion betebeharrak betetzeko adina eskumen izango dituena.

4. Estatuko oinarrizko legerietan edota berau garatzeko erkidegoko legerietan xedatutakoak eraenduko ditu onuraduna izateko bete behar diren eskakizunak, horien betebeharrak eta elkarteekiko lankidetza hitzarmenak egitea, baita udalak onetsiko dituen oinarrietan ezarritakoak ere.

**8. artikulua.—*Onuradunen betebeharrak***

Hauexek dira onuradunen betebeharrak:

a) Xedea betetzea, proiektua betearaztea, jarduera egitea edo diru-laguntzaren emakidaren oinarriaren araberako jarrera izatea.
b) Diru-laguntza eman duen erakundearen edo, hala denean, erakunde laguntzailearen aurrean egiaztatzea eskakizunak eta baldintzak betetzen direla, baita jarduera egitea eta diru-laguntza emateko edo izateko helburua betetzea ere.
c) Emaileak edo, hala denean, erakunde laguntzaileak egin beharreko egiaztapenen menpe jartzea, baita kontrola egiteko organo finantzario eskudunek egin ditzateken finantza eta egiaztapeneko beste jarduketen menpe ere, bai nazio mailakoak, bai erkidego mailakoak; gainera, jarduketa horiek egiteko eskatzen zaien informazioa eman beharko dute.
d) Erakunde emaileari edo erakunde laguntzaileari jakinaraztea diruz lagundutako jarduerak finantzatzen dituzten bestelako diru-laguntzak, laguntzak, sarrerak edo baliabideak. Horien guztien berri izan eta berehala egingo da jakinarazpena eta, nolanahi ere, jasotako funtsei emandako aplikazioaren egiaztapena baino lehen.
e) Udalarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharretan egunean egotea egiaztatzea, diru-laguntza emateko ebazpena egiaztatu baino lehen.
f) Kontabilitate liburuak, dilijentzia eginda duten erregistroak eta behar bezalako auditoretza duten gainerako agiriak izatea, kasu bakoitzean onuradunari aplika dakiokeen merkataritza eta arlokako legeriaren arabera, baita diru-laguntzen oinarri arautzaileetan eskatzen diren berariazko erregistroak eta kontabilitate orriak ere, egiaztapena eta kontrola egiteko ahalmenak egoki betetzen direla bermatzeko.
g) Jasotako funtsak aplikatzeko egiaztagiriak gordetzea, elektronika agiriak barne, egiaztapen eta kontroleko jarduketak egin daitezkeelako horien gainean.
h) Zabalkundea emateko legez ezarritako neurriak hartzea diru-laguntza jasotzen duten egitarauen, jardueren, inbertsioen edo edozein motatako jarduketaren finantzaketaren izaera publikoari dagokionez. Bereziki jendaurreko jarduerak direnean, Basauriko Udala babeslea dela agertu behar da.

**9. artikulua.—*Erakunde laguntzaileak***

Erakunde laguntzaileak izango dira, udalaren edo haren erakunde autonomoen izenean eta kontura jardunda diru-laguntzarekin lotutako ondorio guztietarako, onuradunei funts publikoak eman eta banantzen dizkieten erakundeak, oinarri arautzaileetan hala ezarrita dagoenean, edo bestela diru-laguntzaren kudeaketan laguntza ematen duten erakundeak, jasotako funtsak aurretiaz eman eta banatu gabe. Funts horiek inola ere ez dira hartuko beren ondareko elementutzat.

tipo de unidad económica o patrimonio separado que, aun careciendo de personalidad jurídica, puedan llevar a cabo los proyectos, actividades o comportamientos o se encuentren en la situación que motiva la concesión de subvenciones.

3. En el caso del apartado anterior, deberá nombrarse un representante o apoderado único de la agrupación, con poderes bastantes para cumplir las obligaciones que, como beneficiario, corresponden a la agrupación.

4. Los requisitos para obtener la condición de beneficiario, sus obligaciones y la realización de convenios de colaboración con las mismas, se regirán por lo dispuesto en la legislación básica estatal y/o de desarrollo autonómica, así como en las bases que apruebe el Ayuntamiento.

**Artículo 8.—*Obligaciones de los beneficiarios***

Son obligaciones de los beneficiarios:

a) Cumplir el objetivo, ejecutar el proyecto, realizar la actividad o adoptar el comportamiento que fundamenta la concesión de las subvenciones.
b) Justificar ante el órgano concedente o la entidad colaboradora, en su caso, el cumplimiento de los requisitos y condiciones así como la realización de la actividad y el cumplimiento de la finalidad que determinan la concesión o disfrute de la subvención.
c) Someterse a las actuaciones de comprobación a efectuar por el órgano concedente o la entidad colaboradora, en su caso, así como cualesquiera otras de comprobación y control financiero que puedan realizar los órganos de control competentes, tanto nacionales como comunitarios, aportando cuanta información les sea requerida en el ejercicio de dichas actuaciones.
d) Comunicar al órgano concedente o a la entidad colaboradora la obtención de otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos que financien las actividades subvencionadas. Esta comunicación debe efectuarse tan pronto como se conozca y, en todo caso, con anterioridad a la justificación de la aplicación dada a los fondos percibidos.
e) Acreditar, antes de dictarse la resolución de concesión de la subvención, hallarse al corriente del cumplimiento de las obligaciones tributarias frente al Ayuntamiento y a la Seguridad Social.
f) Disponer de libros contables, registros diligenciados y demás documentos debidamente auditados en los términos exigidos por la legislación mercantil y sectorial aplicable al beneficiario en cada caso, así como cuantos estados contables y registros específicos sean exigidos por las bases reguladoras de las subvenciones, con la finalidad de garantizar el adecuado ejercicio de las facultades de comprobación y control.
g) Conservar los documentos justificativos de la aplicación de los fondos recibidos, incluidos los documentos electrónicos, en tanto puedan ser objeto de las actuaciones de las actuaciones de comprobación y control.
h) Adoptar las medidas de difusión legalmente establecidas, respecto al carácter público de la financiación de programas, actividades, inversiones o actuaciones de cualquier tipo que sean objeto de subvención. En especial, tratándose de actividades con repercusión pública, deberá figurar el patrocinio del Ayuntamiento de Basauri.

**Artículo 9.—*Entidades colaboradoras***

Son entidades colaboradoras aquéllas que, actuando en nombre y por cuenta del Ayuntamiento o sus Organismos Autónomos a todos los efectos relacionados con la subvención, entregue y distribuya fondos públicos a los beneficiarios cuando así se establezca en las bases reguladoras, o colabore en la gestión de la subvención sin que se produzca la previa entrega y distribución de los fondos recibidos. Estos fondos, en ningún caso se considerarán integrantes de su patrimonio.

**10. artikulua.—*Debekuak***

1. Ezin izango dira onuradunak edo erakunde laguntzaileak izan ondoko egoeraren batean dauden pertsonak edo erakundeak, diru-laguntza motagatik araudian salbuesten direnean izan ezik:

a) Diru-laguntzak edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzera zigortuta egon izana epaileak emandako epai irmoaren bidez.
b) Prozedura judizialaren adierazpena eskatu izana, edozein prozeduratan kaudimengabetzat hartu izana, prozedura judizialean parte hartu izana, epailearen esku-hartzearen menpe egotea edo Prozedura Judizialari buruzko Legearen arabera gaitasungabetu izana prozedura judiziala kalifikatzeko epaian finkatutako gaitasungabetzearen epealdia amaituta.
c) Administrazioarekiko edozein kontratu erabaki irmoaz suntsiarazi izana, errunduntzat hartzeko ebazpena delaeta.
d) Pertsona fisikoa, merkataritza sozietateko administratzaileak edo beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkaritza dutenak legeria hauetan ezarritako bateraezintasuneko kasuren batean egotea: Nazioko Gobernuko Kideen Bateraezintasunen legerian, Eusko Jaurlaritzako kideen eta goiko karguen bateraezintasunen legeria autonomikoan, herri administrazioetako zerbitzuko langileen bateraezintasunari buruzko legerian edo edozein kargu hautatua izatea, gai horren inguruko hauteskundeei buruzko legeria orokorrean edo autonomikoan ezarritakoaren arabera.
e) Zerga betebeharrak egunean ez izatea, bereziki udalarekikoak edo Gizarte Segurantzarekikoak.
f) Arauetan paradisu fiskaltzat hartzen den herrialde edo lurralde batean bizi izatea.
g) Diru-laguntzaren itzulketagatiko betebeharrak egunean ez izatea, arauetan ezarriko denaren arabera.
h) Ebazpen irmo bidez zigortuta egon izana diru-laguntzak lortzeko aukera galduta, diru-laguntzari buruzko estatuko legeria arautzailearen edo Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren arabera.

2. Aurreko atalean ezarritako debekuetan erori ez izanari buruzko egiaztapena epailearen aurreko testigantzaren bidez, ziurtagiri telematikoen edo datuen eskualdaketen bidez egin daiteke teknika elektroniko horien erabilera arautzen duen arautegian xedatutakoaren arabera, edo bestela administrazioaren ziurtagiriaren bidez egin daiteke, kasuen arabera. Agintari eskudunak egiaztapena ezin eman dezakeenean, horren ordez erantzukizun-adierazpena egin daiteke administrazio agintarien edo notario publikoaren aurrean.

**11. artikulua.—*Emandako diru-laguntzen publizitatea***

1. Udalak eta haren erakunde autonomoek emandako diru-laguntzen gaineko publizitatea egingo dute. Horretarako, diru-laguntzen zerrendaren iragarkia iragarki-oholtzan jarriko da, deialdia, egitaraua eta ezarri zaien aurrekontuko kreditua, onuraduna, emandako kopurua eta diru-laguntzaren xedea edo xedeak adierazita.

2. Halaber, aurreko atalean aipatutako iragarki-oholtzako iragarkia jartzea agintzen duen ebazpenaren laburpen bat argitaratuko da «Bizkaiko Aldizkari Ofizial»ean.

3. Ondorengo kasuetan ez da beharrezkoa diru-laguntzaren iragarkia argitaratzea:

a) Diru-laguntzek izendun diru-kopurua dutenean udalaren eta haren erakunde autonomoen aurrekontuetan.
b) Diru-laguntzaren emakida eta onuradun zehatzaren aldeko kopurua lege lerruna duen arau bat dela bide ezartzen direnean.
c) Emandako diru-laguntzen zenbatekoak, banan-banan hartuta, 3.000 eurotik beherakoak direnean. Kasu horre-

**Artículo 10.—*Prohibiciones***

1. No podrán obtener la condición de beneficiario o entidad colaboradora, las personas o entidades en quienes concurra alguna de las circunstancias siguientes, salvo que por la naturaleza de la subvención se exceptúe en su normativa reguladora:

a) Haber sido condenadas, mediante sentencia judicial firme, a la pena de pérdida de obtener subvenciones o ayudas públicas.
b) Haber solicitado la declaración de concurso, haber sido declarado insolvente en cualquier procedimiento, hallarse declarado concurso, estar sujeto a intervención judicial o haber sido inhabilitado conforme a la Ley Concursal sin que haya concluido el período de inhabilitación fijado en la sentencia de calificación del concurso.
c) Haber dado lugar a la resolución firme de cualquier contrato con la Administración, por causa de la que hubiese sido declarado culpable.
d) Estar incursa la persona física, los administradores de las sociedades mercantiles o aquéllos que ostenten la representación legal de otras personas jurídicas, en alguno de los supuestos de incompatibilidad establecidos en la legislación de Incompatibilidades de Miembros del Gobierno de la Nación y de los Altos Cargos de la Administración General del Estado, de la legislación autonómica sobre incompatibilidades de miembros del Gobierno Vasco y altos cargos del mismo, de Incompatibilidades del personal al servicio de las Administraciones Públicas o tratarse de cualquier cargo electo, en los términos establecidos en la legislación electoral general o autonómica en la materia.
e) No hallarse al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias, en especial frente al Ayuntamiento, o frente a la Seguridad Social.
f) Tener la residencia en un país o territorio calificado reglamentariamente como paraíso fiscal.
g) No hallarse al corriente del pago de obligaciones por reintegro de subvenciones en los términos que reglamentariamente se determinen.
h) Haber sido sancionado mediante resolución firme con la pérdida de la posibilidad de obtener subvenciones según la Legislación básica estatal reguladora de las mismas, o la Ley o Norma Foral General Tributaria.

2. La justificación de no estar incurso en alguna de las prohibiciones establecidas en el apartado anterior, podrá realizarse mediante testimonio judicial, certificados telemáticos o transmisiones de datos de acuerdo con lo establecido en la normativa reglamentaria que regule la utilización de dichas técnicas electrónicas, o certificación administrativa, según los casos. Cuando la certificación no pueda ser expedida por la autoridad competente, podrá ser sustituido por una declaración responsable otorgada ante autoridad administrativa o notario público.

**Artículo 11.—*Publicidad de las subvenciones concedidas***

1. El Ayuntamiento y sus Organismos Autónomos darán publicidad a las subvenciones concedidas mediante inserción en el Tablón de Anuncios de relación de las subvenciones concedidas, con expresión de la convocatoria, el programa y el crédito presupuestario al que se imputen, beneficiario, cantidad concedida y finalidad o finalidades de la subvención.

2. Asimismo, se publicará en el «Boletín Oficial de Bizkaia» un extracto de la resolución por la que se ordena la publicación en el Tablón de Anuncios referida en el apartado anterior.

3. No será necesaria la publicación en los siguientes supuestos:

a) Cuando las subvenciones tengan asignación nominativa en los presupuestos del Ayuntamiento y sus Organismos Autónomos.
b) Cuando su otorgamiento y cuantía a favor de beneficiario concreto, resulten impuestos en virtud de norma con rango de Ley.
c) Cuando los importes de las subvenciones concedidas, individualmente consideradas sean de cuantía inferior a

tan, diru-laguntzen onuradunen publizitatea ziurtatuko duten beste prozedura batzuen erabilera aurreikusi beharko da arau arautzaileetan, diru-laguntzaren ezaugarri berezien, zenbatekoaren eta kopuruaren arabera.

d) Diru-laguntzaren xedea dela-eta onuradunaren datuen argitalpena pertsona fisikoen ohore, intimitate pertsonal eta familiarraren errespetuaren eta zaintzaren kontra datorrenean, ohorea, intimitate pertsonala eta familiarra eta norberaren irudia izateko eskubidearen babes zibilari buruzko maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoan ezarritakoa dela bide, betiere eskubide hori arautegi arautzailean ezarri bada.

4. Onuradunek publizitate egokia eman beharko diete egitarauen finantzaketari, jarduerei, inbertsioei edo diru-laguntza jasotzen duen edozein jarduketari, arauetan edo emakidari buruzko oinarri arautzaileetan ezarritakoaren arabera.

**12. artikulua.—*Diru-laguntzen kudeaketari buruzko informazioa***

1. Udalak edo haren erakunde autonomoek arauetan ezarritakoaren arabera kudeatutako diru-laguntzei buruzko informazioa eman beharko diote Estatuaren edo erkidegoko agintari eskudunen Esku-hartzailetza Nagusiari, estatistikaren eta informazioa ematearen ondorio hutsetarako, estatuko edo erkidegoko datu-basea eratzeko, halako moldez non bete egingo baita Europar Batasunaren eskakizuna: diru-laguntzen eraginkortasuna hobetzea, metaketa eta diru-laguntzak kontrolatzea eta plangintza, jarraipena eta kontroleko jarduerak erraztea.

2. Aurreko atalean ezarritakoa dela bide Estatuaren Esku-hartzailetza Nagusiari utzi behar zaizkion datu pertsonalak emateko, ez da behar izango ukitutako pertsonaren baimenik.

3. Datuen berri duten agintariek eta funtzionarioek lanbide sekreturik zorrotzena eta osoena gorde beharko dute nahitaez datuoi dagokienez.

I. TITULUA

## DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO ETA KUDEATZEKO PROZEDURAK

I. KAPITULUA

### EMAKIDA PROZEDURA

**13. artikulua.—*Emakida prozedurak***

1. Diru-laguntzak emateko ohiko prozedura lehiaketa izango da. Prozedura hori dela bide, aurkeztutako eskabideak alderatuta egingo da diru-laguntzen emakida, eskabideen arteko lehentasunak ezartzeko, betiere oinarri arautzaileetan eta deialdian aldez aurretik finkatutako balorazio irizpideekin bat etorriz, baita baloraziorik handiena izan dutenak esleitzeko ere deialdian finkatutako mugaren barruan eta kreditu erabilgarriaren barruan.

2. Salbuespenez, oinarrietan hala ezartzen bada, erakunde emaileak diru-laguntzaren guztizko zenbatekoa hainbanatuko du diru-laguntzaren onuradunen artean.

3. Zuzenean eman ahal izango dira diru-laguntza hauek, betiere behar bezalako zioak ematen badira:

a) Udalaren edo haren erakunde autonomoen aurrekontu nagusietan izen eta guzti ezarritako diru-laguntzak, hala denean bertan finkatutakoaren arabera edo hitzarmenetan eta diru-laguntzen arautegian xedatutakoaren arabera

b) Administrazioari lege lerruneko arauak ezarritako diru-laguntzen emakida edo zenbatekoa dutenak, arautegiaren beraren arabera aplikatu beharreko emakida prozedura jarraituko duten diru-laguntzak hain zuzen.

c) Salbuespenez, onura publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioko helburua betetzeko izatea egiaztatzen diren diru-laguntzak, edo behar bezala egiaztatuak izanik deialdi publikoa egiteko zailtasunak daudenean.

4. Ezin izango da deialdian finkatutakoa baino kopuru handiagoko diru-laguntzarik eman.

3.000 euros. En este supuesto, las bases reguladoras deberán prever la utilización de otros procedimientos que, de acuerdo con sus especiales características, cuantía y número, aseguren la publicidad de los beneficiarios de las mismas.

d) Cuando la publicación de los datos del beneficiario en razón del objeto de la subvención pueda ser contraria al respeto y salvaguarda del honor, la intimidad personal y familiar de las personas físicas, en virtud de los establecido en la Ley Orgánica 1/1982, de 5 de mayo, de protección civil del derecho al honor, a la intimidad personal y familiar y a la propia imagen, y haya sido previsto en su normativa reguladora.

4. Los beneficiarios deberán dar la adecuada publicidad el carácter público de la financiación de programas, actividades, inversiones o actuaciones de cualquier tipo que sean objeto de subvención en los términos que se establezcan reglamentariamente, o en las bases reguladoras de la concesión.

**Artículo 12.—*Información sobre la gestión de subvenciones***

1. El Ayuntamiento o sus Organismos Autónomos facilitarán a la Intervención General del Estado o de las autoridades autonómicas competentes, a efectos meramente estadísticos e informativos, información sobre las subvenciones que gestionen, en los términos previstos reglamentariamente, al objeto de formar una base de datos estatal o autonómica, dando cumplimiento a la exigencia de la Unión Europea mejorar la eficacia, controlar la acumulación y concurrencia de subvenciones y facilitar la planificación, seguimiento y actuaciones de control.

2. La cesión de datos de carácter personal que, en virtud del apartado anterior, deba efectuarse a la Intervención General del Estado, no requerirá consentimiento del afectado.

3. Las autoridades y funcionarios que tengan conocimiento de los datos, estarán obligados al más estricto y completo secreto profesional respecto de los mismos.

TITULO I

## PROCEDIMIENTOS DE CONCESION Y GESTION DE LAS SUBVENCIONES

CAPITULO I

### DEL PROCEDIMIENTO DE CONCESION

**Artículo 13.—*Procedimientos de concesión***

1. El procedimiento ordinario de concesión de subvenciones es el de concurrencia competitiva. En virtud de dicho procedimiento, la concesión de subvenciones se realiza mediante la comparación de las solicitudes presentadas, a fin de establecer la prelación entre las mismas, de acuerdo con los criterios de valoración previamente fijados en las bases reguladoras y en la convocatoria, y adjudicar, dentro del límite fijado en la convocatoria dentro del crédito disponible, aquéllas que hayan obtenido mayor valoración.

2. Excepcionalmente, siempre que así se prevea en las bases, el órgano concedente procederá al prorrateo, entre los beneficiarios de la subvención, del importe global destinado a la misma.

3. Podrán concederse de forma directa y debidamente motivadas las siguientes subvenciones:

a) Las previstas nominativamente en los Presupuestos Generales del Ayuntamiento o de sus Organismos Autónomos, en los términos recogidos, en su caso, en o los correspondientes convenios y en la normativa reguladora de estas subvenciones.

b) Aquéllas cuyo otorgamiento o cuantía venga impuesto a la Administración por una norma e rango legal, que seguirán en procedimiento de concesión que les resulte de aplicación de acuerdo con su propia normativa.

c) Con carácter excepcional, aquellas otras subvenciones en que se acrediten razones de interés público, social, económico o humanitario, u otras debidamente justificadas que dificulten su convocatoria pública.

4. No podrán otorgarse subvenciones por cuantía superior a la que se determine en la convocatoria.

II. KAPITULUA

## EMAKIDARI BURUZKO PROZEDURA NAGUSIA, LEHIAKETAKO ARAUBIDEAREN ARABERA

1. ATALA

### OINARRIAK ONESTEKO ESPEDIENTEA

**14. artikulua.—*Edukia eta izapidea***

1. Diru-laguntza eman baino lehen, espedientea egin beharko da, beti ofizioz hasiko dena eta hurrengo ataletan ezarritakoarekin bat etorriz izapidetuko dena.

2. Diru-laguntza emateko egokitasuna eta aukera eta diru-laguntza legezkoa dela egiaztatzen dituen txostena eman beharko du aurrekontuko egitarauaren funtzionario arduradunak, honako hauen aurreikuspena eginda diru-laguntzen egitarau estrategikoan: diru-laguntzak emateko aurrekontuko kredituak eta diru-laguntzaren helburua, baldintzak eta xedea; oinarriei buruzko proiektua erantsiko dio txostenari.

3. Diru-laguntzak emateko oinarrietan, gutxienez, honako hauek zehaztuko dira:

a) Diru-laguntzaren xedea eta helburua.
b) Diru-laguntzaren onuradunak eta eskatutako betekizunak.
c) Eskabideak aurkezteko era eta epea.
d) Emakidari buruzko prozedura.
e) Diru-laguntza emateko irizpide objektiboak eta, hala denean, irizpideon haztapena.
f) Epaimahai edo Batzorde Kalifikatzaileko kideak. Ezinbestean, horietako kideak izango dira arloko ordezkaria eta gastuaren funtzionario arduraduna. Udal talde politikoek kide anitzeko organo horietan begiraleak izendatzeko eskubidea izango dute.
g) Diru-laguntzaren banakako kopurua edo kopurua finkatzeko irizpideak.
h) Diru-laguntza emateko prozedurari, ebazpenaren gaineko jakinarazpenaren epeari eta administrazio isiltasunari buruzko ebazpena emateko organo eskuduna.
i) Aurrekontuko kreditua dagoela egiaztatuta izatea.
j) Onuradunen betebeharrak, ordenantza honen 8. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.
k) Diruz lagundutako jardueraren burutzapen partziala beste batzuekin azpikontratatzea onartuta dagoen ala ez, 19. artikuluan jarritako muga izanik.

4. Kredituaren atxikipenari buruzko dokumentua erantsiko zaio espedienteari.

5. Arloko Ordezkaritzak proposamena egingo du.

6. Arloko Ordezkaritzaren proposamena dakarren espedientea igorriko zaio Informazio Batzorde eskudunari ebazpena eman dezan, gaia dela-eta; izan ere, ebazpena aginduzkoa da baina ez loteslea.

7. Espedientea udalaren Barne Kontroleko Atalak fiskalizazio izapidea egiteko igorriko da, berau onesteko proposamena eta guzti.

**15. artikulua.—*Oinarriak onesteko ebazpena***

Alkatetzari dagokio diru-laguntzak emateko oinarriak eta deialdia onestea. Ebazpen hori Informazio Batzordeko kide gehienen irizpidearen kontrakoa bada, aholkuak emateko organo horren irizpidea ez jarraitzeko zioak eman beharko ditu Alkatetzak bere ebazpenean.

**16. artikulua.—*Publizitatea***

Oinarriak onetsi ondoren, deialdiarekin batera argitaratuko dira oinarriok «Bizkaiko Aldizkari Ofizial»ean eta Lurralde Historikoan gehien saltzen den egunkarietako batean iragarki bidez. Oinarrien testu osoa diru-laguntza ematen duen erakundearen iragarki-oholtzan argitaratuko da, testua onesten den egunetik hasita eskabideak aurkezteko azken egunera arte.

CAPITULO II

## DEL PROCEDIMIENTO GENERAL DE CONCESION EN REGIMEN DE CONCURRENCIA COMPETITIVA

SECCIÓN 1.ª

### DEL EXPEDIENTE PARA LA APROBACIÓN DE LAS BASES

**Artículo 14.—*Contenido y tramitación***

1. Con carácter previo a la concesión de una subvención, deberá confeccionarse expediente, que se iniciará siempre de oficio, y que se tramitará conforme a lo dispuesto en los apartados siguientes.

2. El/la funcionario/a responsable del programa presupuestario emitirá un informe que acredite la legalidad, oportunidad y conveniencia de otorgar la correspondiente subvención, con expresión de su previsión en el Programa Estratégico de subvenciones, los créditos presupuestarios a los que se imputa, el objeto, condiciones y finalidad de la subvención; adjuntando el correspondiente proyecto de Bases.

3. Las bases de concesión de subvenciones concretarán, como mínimo, los siguientes extremos:

a) Definición del objeto y finalidad de la subvención.
b) Beneficiarios de la subvención y requisitos exigidos.
c) Forma y plazo de presentación de solicitudes.
d) Procedimiento de concesión.
e) Criterios objetivos de otorgamiento de la subvención y, en su caso, ponderación de los mismos.
f) Composición del Jurado, Tribunal o Comisión Calificadora. Necesariamente, serán miembros de los mismos del Delegado del Area y el funcionario responsable del gasto. Todos los grupos políticos municipales tendrán derecho a designar observadores en dichos órganos colegiados.
g) Cuantía individualizada de la subvención o criterios para su determinación.
h) Organo competente para la resolución del procedimiento de concesión de la subvención, plazo de notificación de la resolución y efectos del silencio administrativo.
i) Constancia de la existencia de crédito presupuestario.
j) Obligaciones de los beneficiarios, conforme a lo dispuesto en el artículo 8 de este Ordenanza.
k) Admisibilidad o no de subcontratación con terceros la ejecución parcial de la actividad subvencionada, con el límite señalado en el artículo 19.

4. Se adjuntará al expediente documento de Retención de Crédito.

5. Se emitirá propuesta por la Delegación de Area correspondiente.

6. Se elevará el expediente con la propuesta de la Delegación de Area, a dictamen, preceptivo y no vinculante, de la Comisión Informativa competente por razón de la materia.

7. El expediente, con su propuesta de aprobación, será sometido al trámite de fiscalización por la Sección de Control Interno del Ayuntamiento.

**Artículo 15.—*Resolución aprobando las bases***

La aprobación de las bases y la convocatoria para la concesión de subvenciones será competencia de Alcaldía. Si dicha resolución fuera contraria al criterio mayoritario de la Comisión Informativa, deberá motivar en su resolución la razón por la que se aparta de criterio de dicho órgano consultivo.

**Artículo 16.—*Publicidad***

La convocatoria y las bases, una vez aprobadas, se publicarán mediante la inserción de los anuncios correspondientes en el «Boletín Oficial de Bizkaia» y en uno de los diarios de mayor difusión de Territorio Histórico. El texto íntegro de las bases se expondrá en el Tablón de Anuncios de la entidad concedente, desde el día de su aprobación hasta el último día de presentación de solicitudes.

2. ATALA

**DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO ESPEDIENTEAK IZAPIDETZEA**

**17. artikulua.—*Eskabideak hartzea***

1. Eskabideetan, Alkatetzari zuzenduko zaizkio interesdunak idatziz, oinarrietan eskatzen diren agiriak erantsita, administrazio prozedura erkideari buruzko legerian ezarritako betekizunak eta baliabideak beteta eta deialdiaren oinarrietan ezarritako epearen barruan. Berariazko eperik jarri ezik, 15 egun balioduneko epea izango da, iragarkia «Bizkaiko Aldizkari Ofizial»ean argitaratu eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita.

2. Eskabideak eta dokumentazio osagarria telematikaren bidez aurkezteko, administrazio prozedura erkideari buruzko arautegian ezarritakoaren arabera jokatu beharko da.

3. Eskabideari erantsi beharreko dokumentazioari buruzko oinarrietan aurreikuspenik egin ezik, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

a) Interesdunaren NANaren edo IFKren fotokopia eta, hala denean, haren legezko ordezkariari dagokiona.
b) Interesdunaren jarduerak irabazi-asmorik ez izateari buruzko zinpeko adierazpena.
c) Erakundearen edo elkartearen estatutuak, irabazi-asmorik gabeko elkarteak badira.
d) Udalarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zorrak egunean izateari buruzko egiaztagiria.
e) Aurreko ekitaldian egindako jarduerei buruzko memoria, hala denean.
f) Diru-laguntzaren helburua, proiektua eta jarduera betetzeko edo diruz lagundutako jarrera hartzeko egiten diren ekintzei buruzko memoria, honako hauek adierazita: sarreren eta gastuen aurrekontua, jarduera egiteko epeak eta datak, aurreikusitako helburuen azalpena, metodologia, nori zuzenduta dagoen eta lortu nahi diren ondorioak.
